

# LIBURU ESKAINTZA

2024<sup>ko</sup> Negua


aek


Garena ikasteko  
para entendernos  
pour se comprendre

Liburuak irakurriz eta irakurriz dena ikasten zela uste zen antzina. Gaur egun badakigu den-dena ez dagoela liburuetan; euskara ikasteko ere liburuak baino gauza gehiago behar ditugu, bai. Halere, liburuek hortxe jarraitzen dute eta, guzti-guztia ekarri ez arren, kontu ugari aurkituko dituzu.

Batzuek euskara ikasten lagunduko dizute: euskaraz idatzitako istorioek, historiak eta poemek. Horietan, benetako eta fikziozko euskaldunak zuri mintzatuko zaizkizu liburuetako hitzen bidez, eta irakurriko dituzu hainbat izen, aditz, berba, pasarte eta paragrafo zuretzat patxadaz prestatuak, patxadaz irakur ditzazun.

Beste batzuek, berriz, euskara ikasten ari zarela ahantzaraziko dizute. Ezagutuko dituzu lekuak, pertsonak, istorioak eta sentimenduak: poza, beldurra, barrea, harridura... Murgilduko zara letren itsaso batean, eta hantxe gozatuz euskara ikasiko duzu euskara ikasten ari zarela ahaztuta.





## MAITASUN KAPITALA

Karmele Jaio

Bere maitalea izandako Martinen hiletan dago Olga. Bertan gogoratzen du berarekin bizi izandako pasio sutua, gizonak duela urtebete utzi zuen arte. Oroitzapenetan murgilduta, Martinekiko bere mendekotasun emozionalaz ohartzen da, eta horrek agerian uzten dio, bere burua emakume aske eta ahaldundutzat bazuen ere, maitasunarekin beti izan duen kontraesana. Aldi berean, tesi bat zuzentzen dabil Olga irakaslea, emakumeei maitasuna euren bizitzako erdigunea izaten erakutsi zaien moduan sakontzen duena, horretarako Artearen eta Literaturaren historiako zenbait lanetan oinarrituz. Pertsonaiek bizitako esperientziak eta bateko nahiz besteko artistek piztutako gogoetak tartekatuz, nobela anbiziotsu bat osatu du Karmele Jaio, arin irakurtzen dena baina arrasto sakona uzten duena, nor bere buruari begira hausnarketara bultzatuz.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2023

**Orr:** 240

**Prezioa:** ~~22~~ - 18,70 €



## EZ DAKIT ZERTAN ARI ZAREN

Ana Malagon Zaldia

Bere asperdura eta nazka guraso dibortziatu baten etxetik bestearenera garraiatzen dituen nerabea; aita enpresaria hil ondoren beren erdipurdikierarekin zer egin ez dakiten seme-alabak; ahizpa atxilotu dutela-eta, haren kargu egitera doan klausurako moja; gaueko txanda baten ondoren, ama zaharra sarturik daukan erresidentziara doan autobus-gidaria... Pertsonen inguru hurbilean kokatzen ditu egileak tragedia izatera iristen ez diren drama txiki hauek, ironia erabiliz urruntze modura eta garraztasuna defentsarako babes gisa. Trikuaren arantza horien azpian, baina, giza haragia suma daiteke dardarka, gozotasun apur baten eske. Gaurko eta hemengo gizartearen ispilu baldin bada ipuin-bilduma hau, ezin esan oso eder agerrarazten gaituela.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2021

**Orr:** 168

**Prezioa:** ~~18,75~~ - 16 €



## MARKOS GIMENOREN 101 LETRA KARTEL

Joseba Sarrionandia Uribelarrea

Markos Gimeno Vesga, 1974ko maiatzaren 5ean jaio zen Ermuan. Lagunak animatzeko, elkarlanean aritzeko eta buruari bueltak emateko dohaina izan zuen gaztetatik. Bere bizitza sorkuntzara bideratu zuen, nahiz eta bipolaritate gaixotasuna eta depresioaldiak jasan. Bere buruaz beste egin zuen, azkenean, Eibarren 44 urte zituela, 2018ko abenduaren 7an. Musika alorrean, The Pepes, Julio Kageta, Dantzut eta, azkenik, PAM (Puto Amoak Matematiketan) taldeetako partaidea izan zen, baxua eta ahotsa. Antzerkia ere egin zuen, Juanma Rodriguezekin batera, Hipo y Condrias y Macho-Maris. Markos Gimenozen bizitza eta obra oso interesgarriak dira zentzu askotan, eta denok ezagutu beharko genuke. Haren kartel palindromiko bakoitzak sorpresa linguistiko bat aportatzen du, eta zerebroarentzako joko bat. Gainera, euskal komunitate duin, alai eta sortzaile baten parte sentiarazten gaitu.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2023

**Orr:** 248

**Prezioa:** 24 – 20,5 €



## EZ TIRO EGIN ANBULANTZIEI

Mikel Ayllon Corral

Kartzelan azaldu da bat-batean Gerard, zergatik ez dakiela. Sartu duten mundu krudel hori ulertu ezinik emango ditu egunak, banaka desagertzen hasiko diren kidez inguratutik: Fred, Karim, Telmo, Montag... Guztien arteko lokarria eta egoera ulertzeko giltza dirudi Sylviek, Gerardetik arestian ezagututako emakume misterioitsuak. Nor dira mundu zaharra lurperatu nahi luketen horiek? Mundu berria jaio ezinik dabilen argiilun honetan, ez ote da munstroz beteko ingurua? Eleberri ausart bezain aberatsa gauzatu du Mikel Ayllonek Igartza sariaren laguntzaz. Izua eta desolazioa nagusi diren gizarte distopiko batean, elkartasunaren ametsari eta edertasunaren ilusioari eutsi nahi liekete pertsonaiek, nahi horrek nora ezean ibiltzera bultzatzen dituen arren. Atzekoz aurrera ordenaturik dago kontakizuna: kartzela eta heriotzatik abiatutik, haien aurreko maitasun istoriora eta borroka asmoetara. Horrela, amaierara iristen denean historiaren hasieran egongo da irakurlea.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2015

**Orr:** 272

**Prezioa:** 24,65 – 21 €



## ZOO

Goiatz Labandibar Arbelaitz

Jende askoren opor lekuak izan ohi dira kanpinak. Horrek izaera ugaritako jendea elkartzen du leku berean, eta hori bera irudikatu nahi izan du Goiatz Labandibar idazleak Zoo ipuin liburuan. Denera, hamabi istorio bildu ditu liburuaeren barnean, hainbat kanpinetan girotuak.

**Maila:** B2

**Urtea:** 2024

**Orr:** 128

**Prezioa:** ~~13,50~~ - 11,50 €



## AROTZAREN ESKUAK

Alberto Ladron Arana

Ia ezagutzen ez zuen aitonak herentzian mendian galdutako etxe bat utzi diola-eta, hara doa Ane Duhalde, ordura arteko bere bizimodu grisa eten nahian. Etxean, baina, deskubrimendu lazgarri bat egingo du, aitonaren iraganaz galdetzerara behartuko duena. Misterioaren sokak Frantziako Erresistentziaraino eramango du, II. Mundu Gerraren garaian berrogeitaka urte beranduago Europako hainbat lekutan gertaturiko hilketak sorta izugarri bat ere harrapatzen du, eta bere burua arriskuan egon litekeela sentituko du azkenik. Bordeleko polizia erretiratu batekin saiatuko da Ane korapiloa askatzen, eta beste horrenbeste egitera gonbidatzen gaitu Alberto Ladron Aranak, suspensez eta ustekabez beteriko eleberri honetan.

**Maila:** B2/C1

**Urtea:** 2006

**Orr:** 252

**Prezioa:** ~~25,50~~ - 22 €



## IZARRAK ETA HAITZAK

Karlos Aretxabaleta Ormaetxea

Imajinatu eskalatzaille edo mendizale ezagun baten aurrean zaudela, miresten duzun baten aurrean. Imajina ezazu garagardoa daukazuela eskuan, irribarrea aurpegian, eta ahotik hitzak jariatzen direla, esfortzurik gabe, konfiantza osoz, hurbilak, lagunak. Imajinatu euren istorioetan sar zaitezkeela, euren bizitza eraiki duten pasadizoetan. Eta ondoren, entzun eta partekatutako guztia biltzen duzula, errealitateak fikziozko eszenatoki bihurtuta, eta liburu batean gordetzen duzula irudikatu. Bada, horixe egin du Karlos Aretxabaleta idazle bizkaitarrak, Txapelek. Edurne Pasaban, Juanjo San Sebastian, Pou anaiak, Alex Txikon, Oihana Azkorbebeitia, Mikel Zabalza, Alberto Iñurrategi, Ekaitz Maiz, Imanol Amundarain, Irati Anda, Iker Arroitauregi, Iñigo Basterra... horiekin guztiekin, besteak beste, solasalditan ibili da. Haien ondotik ibiliko Basterra... horiekin guztiekin, besteak beste, solasalditan ibili da. Haien ondotik ibiliko ere. Hitzaurrea Juanra Madariagaren eskutik datorrigu azken hitza, berriz, loritz Gonzalez Lertxundik jarri du. Izarren eta haitzen arteko bidaia da liburua.

**Maila:** B2

**Urtea:** 2024

**Prezioa:** 17 – 14,45 €



## MESFIDA ZAITEZ

Bea Salaberri Larre

Borroka armatuaren ezohiko ikuspegi bat ematen du eleberriko protagonistaren eskutik: babes eta laguntza sarean ibilitako emakumeena. Memoria kolektiborako balioko duen eleberririk indartsu bat harilkatu du, fikzio eginez errealitateari komeni bezain hurbiletik segituta. Autoreak, aurretik, Baionak ez daki (Susa, 2015) helduentzako ipuin liburua argitaratu du, bai eta Oihenartea ez da hunki (Elkar, 2023) eta Baiona (Elkar, 2019) helduak euskalduntzeko liburuxkak ere. Hau du lehen eleberria.

**Maila:** C1/C2

**Urtea:** 2024

**Orr:** 408

**Prezioa:** 20 – 17 €



## MIÑAN

Amets Arzallus Antia

Gineako hiriburutik Nzerekorera mila eta hirurehun bat kilometro daude. Ibrahima han ibili zen hiru edo lau urtez, kamioi batean, gidari batek apendiz onartu zuelako. Aste batean Konakrytik Nzerekorera joaten ziren, eta hurrengo astean Konakryra itzuli. Egun batean amak deitu zuen arte: anaia txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu. Afrikatik Europarako bidea.

Mediterraneo zeharkatzen dutenak deshumanizatzea ezinbestekoa da haien heriotzen, kanporatzeen, ilegalizatutako bizitzaren gaineko ezaxola zabaltzeko. Baina bizitza horietako bakoitza bakarra da eta, beraz, unibertsala. Eta kontatzeak hori azpimarratzen du. Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da nobela hau, hark ahoz eta Amets Arzallusek letraz idatzia. Berezia duelako zauria, eta berezia kontatzeko manera. Hitz egitean han balego bezala.

**Maila:** B2

**Urtea:** 2019

**Orr:** 152

**Prezioa:** ~~17,50~~ - 14,90 €



## ZIZARE IA-IA HEGALARIA ETA BESTE IA-IA FABULA BATZUK

Iñigo Astiz Martinez, Mikel Valverde Tejedor (il. )

Zikoinak, uda bukatzen hasi zenean, hegoalderako bidaia prestatzen hasi ziren. Lehen migrazioa izango zen Zak izeneko zikoina gaztearentzat, eta azkena berriz, Zek izeneko zikoina zaharrentzat. Izugarria zen gaztearen jakin-mina eta etengabe egiten zizkion galderak zaharrari. Bidearen nekeak arintzeko, eskarmentuzko bidaiarien antzera, hiru geldialdi egin zituzten behintzat, eta geltoki bakoitzean, topatu zuten ipuin bat, ia-ia fabula izatera iristen zen kontakizuna: Zapa, zapaburu ohiarena, Ilargira bidaia egin nahi zuen Zoe zorriarena eta Zahid, zizare ia-ia hegalariarena. Irakurtzeko nahiz kontatzeko, dibertimendurako idatzita dago fabulen xarma eta lilura darien ipuin hau, ia-ia.

**Maila:** B1.2

**Urtea:** 2024

**Orr:** 76

**Prezioa:** ~~12,80~~ – 10,90€



## PUKA, ANENSE ARMIARMA ETA BI ERRALDOI

Jokin Mitxelena Eritze

Puka artzain-txakurraren lagunak kresal eta arrain usaina nagusi diren herri batean daude. Halako batean, sekulako burrunbak hartu du herriko portu txikia; neska arraunlarien garaipena ospatzen ari dira. Etxafuegoak botatzearekin bat Pukak, beldurtuta, hanka egin du herriko kaleetan barna, Ananse armiarma lagun berriarekin. Alabaina, lagunek ez dute bakarrik utziko; Marina Mostaza, Nora Ketchup, Kepa Piper, Blas Amuarrain eta Lizar Txanpu Pukaren desagerpenaz ohartu direnean, ziztu bizian atera dira bila. Mendian hasi eta itsason amaituko dute ibilaldi zirraragarria.

**Maila:** B1.2

**Urtea:** 2024

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~42,80~~ – 10,90 €



## PELLOKERIAK

Ruben Ruiz Ibarruri

Elpuin-bilduma honek 2024ko Mikel Zarate haur literatura saria irabazi du. Hainbat ipuin laburrez osaturiko kontakizuna da, denetan Pello izeneko mutikoa da protagonista. Kontakizunetan hainbat gai agertzen dira, hala nola: eskola, familia, bullying-a, zahartzarora eta beste, denetan nabarmentzen dira umorea eta samurtasuna. Irakurtzeko nahiz entzuteko idatziak diruditen pasadizo hauei haur baten xalotasuna darie; eta tarteka bizitzaren gordintas

**Maila:** B1.2

**Urtea:** 2024

**Orr:** 60

**Prezioa:** ~~11,80~~ – 10 €



## DEI GALDU BAT

Idoia Garzes Aldazabal

Aminata naiz, hamasei urte ditut eta duela urtebete hasi nuen bidaia hau. Entzuten ari bazatzaizkit, telefono hau jaso duzun horri, eskatzen dizut, mesedez, familiari nire berri emateko. Horixe Itsasok hondartzan botila batean topatutako mezua. Telefono batean, adinkide duen Amiren dei etsia. Oporretako hondartza zoragarri batean, botila batean gordeta, itsasoan galdutako bizitza baten istorioa; testamendu bat, erregu bat. Itsasoaren hegi banatan bereizita Aminata eta Itsaso. Bata beltza eta zuria bestea, bata zuria eta beltza bestea, argazki baten negatiiboan bezala.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2024

**Orr:** 160

**Prezioa:** ~~16~~ – 13,60 €



## EGUNEN AKABERA

Garazi Albizua Castelao

Barras hamasei urteko gaztea da eta Santurtzin bizi da. Familia bitxia du, berezia, iluna: Otakito, neba maiteena, banpiroen eta mangel friki hutsa; Elene (Ahizpa-tornado) agintzailea, eta bere seme biki xelebreak; amama kondairazalea, birramama diktatoriala; ama, aspaldi olagarro bihurtu zena, eta aita... aita erregea. Isiltasunak gobernatzen du bere etxea. Ez du oraindik aitortu, baina beldurra dio munstroari. Munstroei. Halere, inguratzen duen iluntasunean, Barrasek baditu bi kale-argi: Youssef eta Euskolabel, bere lagun minak, bere zaintzaileak. Ondoa dituen bitartean, ez da ezer gertatuko. Edo bai. Familiaren sekretuen zingiran murgildu dute indarrez eta bere bizitza osoa irauli egin da. Ez zaio beste aukerarik gelditzen munstroa borrokatzea baino. «Klak egin, krak ez egiteko».

**Maila:** B2

**Urtea:** 2024

**Orr:** 168

**Prezioa:** 18 – 15,30€



## LAUTADAKO MAMUA

Xabier Montoia Revuelta

XIX. mendea sartuxea da; modernitatearen zantzu batzuk han-hemen barrundatu arren, lur-lanari eta betiko ohiturei loturik bizi da jenderik gehiena. Gizarte tradizional hura goitik behera inarrosiko du, ordea, hilketa sorta batek. Hildakoak prostitutak izan diren bitartean axola handirik ez agintariei zein legea zintzo betetzen duten kristau prestuei; halako batean, baina, emakume ondraduak akabatzen hasi dira, etxekoandre kabalak nahiz neskatiila gazteak. Lautadako paisaiaren soiltasunaz eta negu mineko hoztasunaz kontatu ditu Xabier Montoia kondaira bihurturiko gertakariok, istorioaren lastura agerian uzten duen idazkera doi, zehatz eta ia-ia lehorrez. Krimen beldurgarrian atzean dagoen hatsa sentitzeraino, giza arimaren barrunbeetan datzan mildegiaren ertzean.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2024

**Orr:** 112

**Prezioa:** ~~19~~ – 11 €



## AZKEN PORTUKO POSTDATAK

John Andueza Altuna, Asel Luzurruga Zarrabeitia

Aia Azken Portun bizi izan da beti. Mon ihesi joan zen aspaldi, baina orain, hamar urte pasatu eta gero, herrira bueltatu da. Asko dute elkarri kontatzeko eta, oraingoz aurrez aurre ikusi ez arren, gutunak trukatzeari ekin diote. Iraultza, irakurketak, anarkia, adiskidetasuna, teknokrazia, maitasuna, borroka, artea, gizon-emakumeak, ametsak, bizitza... Era askotako gaiak agertuko dira joan-etorriko gutunotan, eta horrekin batera beren historia berreraikitzen saiatuko dira: urrundu zituen gertakaria, haren inguruko misterioa, baita ezkutuan mantendu dituzten beste hainbat kontu ere. Bakarka literatura ibilbide sendoko idazle bi elkartu dira lau eskutara ondutako nobela bat idazteko: eskutitz bidezko eleberri bat, arin eta atseginez irakurtzen dena, baina gai sakonak planteatu eta zer pentsatua ematen duena. On degizula!

**Maila:** C1

**Urtea:** 2024

**Orr:** 180

**Prezioa:** ~~19,50~~ – 15,75 €



## HETERO

Uxue Alberdi Estibaritz

Araua eta arrakala. Bien arteko tentsioan ageri zaizkigu ipuin hauetako protagonistak. Emakumezkoak dira ia denak, eta gizonez ari dira, nagusiki. Haiek euren gorputzetan, memoria afektiboan eta egunerokoan utzitako arrastoez. Gizonekiko espektatibez eta dezepzioez: unean bertan egin eta esan ez ziren horiez. Aitak —odolekoak, kulturalak, politikoak—, maitaleak, adiskideak ageri dira kontakizunotan. Tesi zuzendari, editore eta militante “idealizatuak”; hiru laguneko gorputz bakar bat frenorik gabe aldapan behera; Zarautz, Elgoibar, Kuba —“desira aplastante bat”—; whatsapp bidezko literatura lezioak; ezin bete diren promesak urpean eta naufragatzen utzitako bizi-puskak; hiltzen jarraitzen duen aita bat, alargun igerilari bat. Tarteko jendearen presentzia aztoragarria eta hizkuntzaren dardara bizia. Zortzi istorio askotariko eta hurbileko bildu ditu Uxue Alberdik bere hirugarren narrazio liburuan.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2024

**Orr:** 160

**Prezioa:** ~~17,50~~ – 14,90€



## COCA-COLA BAT ZUREKIN

Beñat Sarasola Santamaria

Frank O'Hara poetak zuzendutako lehen erakusketaren pase berezia New Yorken. 1960ko uda. Espainiako pintura eta eskultura berriaren lagin on bat biltzea da ideia, eta hautagaien artean daude nazioartean sona hartzen ari diren Oteiza eta Chillida izeneko artista bi ere. Artea erregimen frankista zuritzeko baliatu ez dadin adi daude, aldiz, beste zenbait. Eta, bitartean, O'Harak, lanak lan, Vincent Warren dantzari eta maitalearengan du jarrita bere gogo biziena. New York, Madril, Irun, Montevideo, Donostia, Miarritze. John Ashbery, Grace Hartigan, Luis Gonzalez Robles, Antoni Tàpies, Diane di Prima, Ramos ahizpak. Iragan mendearen erdialdea igaro berritan, AEBetako eta Europako kultur mundua astindu zuten dozenaka izen sartu-irtenean dabilta kontakizun honetan, argiaren —hala itsasertzeko egun batena, nola etxe-orratzen bitarteetakoa—, minduraren eta begirada ironiko bezain alai baten artean. O'Hararen poemetan gertatzen den bezalatsu, hain justu. Haietako bati zor dio izena Beñat Sarasolaren bigarren nobelak.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2024

**Orr:** 328

**Prezioa:** ~~22~~ – 18,70 €



## FRANCESCO PASQUALEREN BOSGARREN ARIMA

Unai Elorriaga Lopez de Letona

Zerriak, heriotza goiztiarregiak, gogotik joaten ez diren umetako lagunak, erdiminak, esnea, gurdiak, askotariko gaitzak eta ur-azalean barreiatutako partituras. Irudi horiek gailendu ziren, besteren artean, Francesco Pasqualeren egunetan. Saprin jaio zen, Italia hegoaldean, eta Richard Wagner, Robert Schumann eta Giuseppe Verdi konpositoreekin konpartitu zuen bere mundualdiaren parte handi bat. Galdaragile familia bateko semea, orduko giro politikoan nahasi, eta Mediterraneo itsasoaz bestaldera jo zuen, harik eta Bermeora heldu zen arte. Haren arrastoari segika, XIX. mendeko Europa mendebaldean zabaldufako giza mapa bat eskaintzen du Unai Elorriagaren zazpigarren nobelak. Beregainak diren atalekin eraiki du kontakizuna idazleak, elkarren segidan jarrita oihartzuna puska harago hedatzen dutenak; hitz lauz eta urarena halako musika itsaskorrez.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2024

**Orr:** 216

**Prezioa:** ~~19~~ – 16,15 €



## BISITA

Mikel Pagadizabal Amiano

Plater hegalaria bat iritsi da Lur planetara, estralurtarrak etorri dira gugana, baina ez dute lur hartu ez Dakotan ez Minnesotan, baizik eta Euskal Herrian; zehazkiago, Anoeta herriko bi baserriren arteko soroan. Mundu osoa aztoratuko du gertakari horrek, baina batez ere bertakoak: zer da objektu hegalaria ezezagun hori? Nondik dator? Zer nahi dute? Zer egingo dugu? Mikel Pagadizabal aktore, aurkezle eta gidoigileak umore ganberoz idatzitako zientzia-fikziozko nobela.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2024

**Orr:** 176

**Prezioa:** ~~17~~ – 14,50 €




## EZER EZ DAGO UTZI NUEN LEKUAN

Itziar Otegi Aranburu

“Gaztetan herritik alde egin zuen mutila aita arrantzaletaren hil hurreneko ohe ondora itzuli da, eta horrek oroitzapen olatu bat piztuko du, arrangura eta gaitzespen isilen erresakarekin; Genevan nazioarteko erakunde batean lanpostu irrikatua lortu ondoren, alokairuan hartu duen apartamentuan aurreko maizterrak utzitako arrastoei kateaturik geratuko da beste protagonista bat, jakin-mina obsesio bilakatu arte. Laurogei urteak pasatuta, Mediterraneoan udako etxea saltzera doa Mila, seme-alabei entzungor eginez bera bakarrik, eta era guztietako bizipenak eta sentipenak izango ditu bidaian. Gaztetan herritik alde egin zuen mutila aita arrantzaletaren hil hurreneko ohe ondora itzuli da, eta horrek oroitzapen olatu bat piztuko du, arrangura eta gaitzespen isilen erresakarekin; Genevan nazioarteko erakunde batean lanpostu irrikatua lortu ondoren, alokairuan hartu duen apartamentuan aurreko maizterrak utzitako arrastoei kateaturik geratuko da beste protagonista bat, jakin-mina obsesio bilakatu arte. Laurogei urteak pasatuta, Mediterraneoan udako etxea saltzera doa Mila, seme-alabei entzungor eginez bera bakarrik, eta era guztietako bizipenak eta sentipenak izango ditu bidaian.

**Maila:** C1    **Urtea:** 2024    **Orr:** 136    **Prezioa:** ~~13,50~~ – 11,50€



## DENBORAREN ZUBIA Iñaki Iturain

Orizarreko herritarrei ia oharkabean iritsi zitzaizen gerra. Arrantzale herri hartako gizon-emakumeek ahal zutena egin zuten egoera berrira egokitzeko. Gerra, nolanahi ere, atrezzo hutsa da kontakizunotan, denbora eta espazio bat ematen die Denboraren zubia liburuko zazpi ipuinei eta istorioetako protagonistei. Gerran gertatu ohi denez, 1936koan ere, Orizar herri txikian herritar batzuk zain zeuden soldaduak Nafarroa aldetik noiz iritsiko eta beste batzuk, berriz, horren beldurrez. Batzuk etxean geratu ziren, beste batzuek ihes. Sentimendu onenetik txarrenetara azalerau zitzaizkien herritarrei, barru-barrutik. Era askotako protagonistak ditugu liburuko zazpi narrazioetan: Etxean zeukaten irratia balkoira ateratzen zuten etxeko andre-gizonak, etxepean biltzen ziren herritarrek bazetorkien gerraren albisteak entzun ahal zituzaten. Faxisten aurrerakada gelditzeko gorriek dinamitaz lehertutako ibaiaren gaineko zubia berreraikitzen ibilitako presoaren istorioa. Bi mutil gazte, bataren eta bestearen aita kontrako bandokoak izanik, itsas labarrean adiskidetu zirenak. Gerra bukatu berrikan Frantziatik Orizarra misio sekretuan etorritako neska antropologo eta argazkilaria. Gerran gudari ibilitako gizonaren alaba kementsua. Orizarren zubia bota zuen gerrak. Gero, presoek berreraiki, erriorearen bi aldeak berriro lotzeko. Liburuan tragedia haren garaiko istorioak gogora ekarri nahi izan dira, oroimenaren bidez. Orduan bi aldeak bezala, lotu ditu orain zubiaren denborak bi aldiak.

**Maila:** C1    **Urtea:** 2024    **Orr:** 136    **Prezioa:** ~~17,50~~ – 14,90 €



## ZEBRAK ETA BIDEAK

Nerea Loiola Pikaza

Gaske bat, ezezkorik esan ezin diona bere etxeko terrazan lkeako iragarki bat grabatzeari. Emakume bat, haur jaioberria gabez esnatzearen beharrak obsesionaturik, edozer egiteko prest dagoena idazten ari den ipuina amaitzeko. Iraganeko gertakari tragikoa, ustez desiratutako bizitzaren zimenduak astintzera itzuli dena. Noraezean dabilen nerabea, askatasunaren konplexutasunak ezinbestean kolpatuta. Beste emakume bat, ekilibrioak egiten dabilena pultsio basati batekin eta bultzatzen duena bere baitatik ihes egitera, gertatu beharrekoari gertatzen uztera. Ama-emazte eredugarria, hoteleko ohe handiegiaaren izara artean katramilatu dituen desirak, beldurrak eta marra gorriak. Sei ipuinez osatua da Nerea Loiolaren bigarren narrazio bilduma hau. Ipuin hauekako pertsonaiek aurrera egin beharko dute bizitzak ezarritako bidegurutzetan; ezezagunera urratsak egin, emakumea eta animalia itzal- errebelazio binomioaren zokorik ezkutuenetan elkartzen diren lekuetara. Geldirik egotea ez da aukera bat.

Ahots propioa, estilo fin eta zuzena eta erakarmen-indar handiko istorioak dakartza Loiolak berriz ere; beti giza harremanei eta emozioen euste-hormen pitzadurei so, xehetasunari eta keinuari adi. Liburuko azken kontakizunak ematen dio izena: Zebra eta bideak.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2024

**Orr:** 144

**Prezioa:** ~~19,16~~ – 16,15 €



## EURI GORRIAREN AZPIAN

Asier Serrano Lasa

Paperezko zeru zabalera begiratu, eta hodeiek markatzen duten mapa gero eta puztuago eta hurbilagoan iraganaren ekaitz perfektu gorria nola lehertuko den kontenplatu. Hogeita bost urte atzera, estatu kolpea hirira heldu zen egunean, ezagutu zuen idazletzatik erretiratua den emakumeak gizon antzezlea. Ordutik, zazpi urteko diktadura, eta hemezortzi urteko ustezko demokrazia. Orain, emakumea hirira itzuliko da, hiltzorian den gizonaren enkargua betetzera. Emakumeak abandonatu zuen sustraletara barne bidaia da kontakizuna. Bazterreko biztanleen bisaian ikusiko du alegiazko estatua nola aldatu den. Fikzioa beti izango da tokatu zaigun garaiko errealitate gordinena kontatzeko tresnarik zehatzena. Asier Serranok estilo xehea du, argia, herdoiltzen ez dena. Poesiak zeharkatzen du kontakizuna, narrazio ezin bikainagoa eskaintzeko irakurleari. Istoria bortitza da, lohitsu, baina dena du ederretik. Asier Serranoren unibertsoaren ataria da Euri gorriaren azpian; nobela honek sortzen duen liluraren aurrean ezin dira begiak itxi.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2024

**Orr:** 164

**Prezioa:** ~~19~~ – 16,15 €



**ARIAN A1.1  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
**Prezioa:** ~~27~~ - 22,95 €



**ARIAN A1.1  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
**Prezioa:** ~~15,25~~ - 12,95 €



**ARIAN A1.2  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
**Prezioa:** ~~27~~ - 22,95 €



**ARIAN A1.2  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
**Prezioa:** ~~15,25~~ - 12,95 €



**ARIAN A2.1  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
**Prezioa:** ~~29~~ - 24,65 €



**ARIAN A2.1  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
**Prezioa:** ~~19,95~~ - 16,95 €



**ARIAN A2.2  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
**Prezioa:** ~~29~~ - 24,65 €



**ARIAN A2.2  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
**Prezioa:** ~~19,95~~ - 16,95 €



**ARIAN B1.1  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak  
+ entzungaiekin)  
**Prezioa:** ~~27~~ - 22,95 €



**ARIAN B1.1  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
**Prezioa:** ~~19,95~~ - 16,95 €



**ARIAN B1.2  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
Prezioa: ~~29~~ - 24,65 €




**ARIAN B1.2  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~19,95~~ - 16,95 €



**ARIAN B2.1  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
Prezioa: ~~23,50~~ - 20 €



**ARIAN B2.1  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~17,50~~ - 14,90 €



**ARIAN B2.2  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
Prezioa: ~~29~~ - 24,65 €



**ARIAN B2.2  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~17,50~~ - 14,90 €



**ARIAN C1  
IKASLEAREN LIBURUA**  
Prezioa: ~~29~~ - 24,65 €



**ARIAN C1  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~19,95~~ - 16,95 €



### TANGO NOIZEAN BEHIN (+CD)

Miren Agur Meabe Plaza / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Malena au pair gisa etorri da Buenos Aiestik Euskal Herriko kostaldeko familia batera, haurrak zaindu eta etxeko lanak egitearen truke euskara ikastera. Familia horretan dagoen denboraldian, hainbat jenderekin harremanak izango ditu, batzuk atseginak eta beste batzuk mingotsak, eta aspaldi-aspaldi Argentinara joan zen birraitonaren baserria ezagutzeko aukera ere izango du.

**Maila:** A1      **Orr:** 72      **Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



### OTSOA (+CD)

Josu Lartategi / Pedro J. Colombo (il.)

Otsoa lasai bizi da bere mendi eta zelaietan, elikagaia eskuratu eta familia zainduz. Otsoaren mundura etsai bat heldu da: gizakia. Eta gizakia etsai beldurgarria eta krudela da. Baina zer gertatuko da borroka horretan otsoa ere beldurgarria eta krudela denean? Nor nagusituko ote da?

**Maila:** A1      **Orr:** 62      **Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



### **BORROKALARI ARGITSUAK (+CD)**

Miren Agur Meabe Plaza / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Zenbait emakumeren eta horien lagunen, bikotekideen, senideen... arteko harremanen berri ematen digu Borrokalaria argitsuak izeneko liburu honek. Gaur egun, gure inguruko edozein tokitan aurki ditzakegu antzeko bizimodu nekoso eta korapilatsuak. Hala ere, pertsonaia guztiak dira borrokalaria: aurrera egin nahi dute, bakoitzak bere bizi-tza menderatzeko.

**Maila:** A1

**Orr:** 72

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



### **SIBERIAKO LOREA (+CD)**

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Andre zaharraren bizitza lasaia da. Bat-batean, norbaitek dei mehatxugarriak egingo dizkio. Telefono-dei horiek edozein ordutan izaten dira. Lehengo lasaitasuna infernu bihurtu da. Emakume gaztearen bizitza etorkizunik gabekoa da. Lan nekagarria egiten du telefonía-enpresa batean: ordu asko eta diru gutxi. Baina itxaropen eskaseko bizitza hori gotik behera aldatu da.

**Maila:** A1

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## NAIA CHINATOWN INGURUAN (+CD)

Alvaro Rabeli / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Naia neska gaztea ez da Archer detektibe famatua, ez da Los Angeles-en edo New York hirian bizi. Naia gure artean bizi da, hemengoa da, titaniozko museoaren ondoan ibiltzen da egunero. Naia emakume langilea eta ikaslea da. Naia hirikoa da, gaurko kultura anitzeko hirian bizi da. Naiak ez du detektibe bokaziorik, baina lan egin behar du bizimodua ateratzeko. Naia zinema beltza da. Naia gure bizitzaren itsasgora eta itsasbehera da. Naiak guk bezala sufrizten du, maitatzen du. Naia Chinatown da, Jack Nicholson gabe.

**Maila:** A1      **Orr:** 76      **Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## MALETA BAT IGOGAILUAN

Andoni Tolosa "Morau", "Mattin" (il.)

Hectorrek A1 maila egin du euskaltegian eta ikasturte osoa egunerokoan jaso du. Oso pozik dago Hector: lagun berriak egin ditu eta kalean euskaraz hitz egiten hasi da. Bibe! Baina ikasturtea ez da beti samurra izan: urduritasuna, poza, lotsa, frustrazioa, harrotasuna, haserre, maitasuna... emozio-festa da euskaltegia! Eta eguneroko hau, euskaltegitik bizirik ateratzeko formula.

**Maila:** A1      **Orr:** 92      **Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## OIHENARTEA EZ HUNKI

Bea Salaberri / Adur Larrea (il)

Peiok Oihenartea etxaldean du bizitokia eta lana. Maite du laborari-lana, lurra, natura eta Baigorriko bizimodua. Bere ametsa da horrela bizitzea: zoriontsu da gustuko bizimoduan, maite duen familiarekin eta lagunekin. Baina bat-batean Peio desagertu da.

Non da? Zer gertatu zaio? Peioren desagertze misterioitsuak kezka sortu du.

Gainera Oihenartea etxaldea ere arriskuan da.

Oihenartea ez hunki istorioak misterioa eta elkartasuna lotzen ditu, eta egungo Ipar Euskal Herria eta espekulazioaren arazoaren errealtatea agertzen ditu.

**Maila:** A1      **Orr:** 92      **Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## ATZAPAR ARRASTOAK (+CD)

John Landon / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Hiru bat metro izango zen altu munstro hura. Gelako sabairaino iristen zen. Begi handi beltzei eta moko luzeari begiratu zien Larryk. Hegazti-mokoa zuen munstroak, baina hegorik ez. Besoak zituen soinetik zintzilik, luzeak eta iletsuak. Eskuetan eta oinetan, berriz, atzapar handiak zituen, gorriorriak. -Atzapar horiek lau lagun hil dizkirate- esan zuen ahots batek.

**Maila:** A2

**Orr:** 74

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## KATU BELTZA (+CD)

John Milne / Kepa Orbe Ferreiro (il.)

Ekintzaz betetako detektibe-istorio moderno honen 7 protagonista Salahadin el Nur polizia inspektorea da. Poliziaren barnean, Antzinateko Ondasunen Sailean egiten du lan. Egipton dagoen europar arkeologo bat hilda agertu ondoren, balio handikoa den estatua txiki bat berreskuratzeko ikerketak hasten ditu Salahadinek. Laster jarriko da nazioarteko kontrabandista-talde baten arrastoaren atzetik.

**Maila:** A2

**Orr:** 72

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## NAIA INDIA GORRIETAN (+CD)

Alvaro Rabelli Yanguas / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Papiroflexia biltzar batera gonbidatuta zegoen gizon bat desagertu egin da ezustean. Haren maitaleak arrastoa galdu du. Naia detektibe gazteak eta Margot laguntzaileak lanak izango dituzte gizona aurkitzen. Hiriko ilunpe ezezagunetara eramango ditu kasuak bi neskak, baita lur azpira ere; hiri honetako aspaldiko india gorrietara, hain zuzen ere.

**Maila:** A2

**Orr:** 72

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## ZISNEA ETA UHARTEA (+CD)

Miren Agur Meabe Plaza / Iñaki G. Holgado (il.)

Kerman Mendizabalek bere historia kontatzen digu. Gaztea zenean, Eguzki lore hotelean lan egiten zuen. Behin, Aste Santuko oporretan, Julia ezagutu zuen eta une bereziak bizi izan zituzten; adibidez, uhartera egindako txangoa. Egun haietan, hain zuzen ere, bitxi-lapurretak gertatu ziren Bilbon, eta polizia hotelerraino heldu zen, galdezka. Egoera larritu egingo da Kermanentzat. Juliak ere alde egingo du. Orain, berrogei urte igaro eta gero...

**Maila:** A2

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## GEMINIKO NEBULOSA (+CD)

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Antso kapitainari misio sekretua agindu diote Eurasiako Konfederazioko agintariek: Marteko Hidra basera zama misteriotu bat eramatea. Bilbopolis megahiria atzean utzi eta, Hermes espaziontzian, bidaiari ekingo dio kapitainak. Marte planetan, ordea, ezuste ugari izango ditu. Aurkikuntza harrigarri batek munduaren eta bizitzaren ikuspegia aldatuko dio.

**Maila:** A2

**Orr:** 68

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## LEGARRAREN DESAGERPENA (+CD)

Miren Gorrotxategi /Manu Ortega

Telmo Legarra polizia ohia herrira itzuli da, desagertutako alabaren bila hamar urtez Europan barrena ibili ostean. Etsita itzuli da, baina herrian aztarna berriak topatu ditu: Nahia desagertu aurreko Gabonetan ateratako argazki misteriotuak Aulezti anaiak jarri ditu susmopean. Polizia-senari eutsi ezinik, berriro ekin dio ikerketari. Oraingoan aurkituko ote du Nahia?

**Maila:** A2

**Orr:** 76

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## DAKOTA ERAIKINEAN (+CD)

Estibaliz Vivanco / Dani Maiz

Deiene Aketxetak New Yorkeko Guggenheim museoan lan-praktikak egiteko gonbite-mezua jaso du. Birritan pentsatu gabe, mezuari baietz erantzun dio. Baina gau horretan bertan, loak hartu ezinik ibili da. Erabaki ona hartu ote du? Ethan Whitefeather Guggenheimeko lan-harremanen arduraduna ezagutzean, gorpuzaldi txarra berrituko zaio. Gainera, Markus bekadun-kidea Dakota eraikinari buruzko lana egiten ari da, eta Deienek eraikin enigmatikoaren misterioan sartuta ikusiko du bere burua.

**Maila:** A2

**Orr:** 76

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## ELURRAREN PROMESA

Miren Agur Meabe Plaza, Iñaki Landa (il. )

Inesek jatetxe batean lan egiten du asteburuetan. Arte Ederretako ikaslea da eta tatuajeak gustatzen zaizkio. Larunbat gau batean istripua izango du bizikletarekin, elurraren erruz. Esmatzean, hala ere, Erdi Aroan aurkituko da eta Inexa izango da denentzat.

Nola itzuli etxera? Nola itzuli XXI. mendera?

Bizitza oso bat pasatu beharko du mundu zahar horretan, zorion eta zoritxarren artean, urteko lehen elurrak berriz ere...

**Maila:** B1

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## IZU-ISTORIOAK (+CD)

Bram Stoker / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

"Drakula" bezalako izu-istorioak idazten maisu izan zenaren hiru istorio:  
- Epailearen Etxea - Burdinazko Emaztegaia - Abel Behenaren itzulera  
Mendekua da gai nagusia eta hirurak dira misteriozkoak eta hotzikara ematen duten horietakoak.

**Maila:** B1

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## ENIGMAK (+CD)

Georges Simeon / Bruno Hidalgo Garcia (il.)

Sei detektibe-istorio labur, Frantziako hainbat eskualdetan eta ingurune ezberdinetan kokatuak: G. 7, Altzariak mugitzen zituen mamua, Gorpua desagertu, Hans Peter, Monceau parkeko sutea eta Desagertuen gaztelua.

**Maila:** B1

**Orr:** 72

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## ISTANBULEN ELKARTUKO GARA (+CD)


Richard Chisholm / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Han egon zen pixka batean Tom kale erdian, etxe ilun eta isil hari begira. - Anjela! - esan zuen poliki bere artean-. Anjela! Non arraio zaude? Handik metro gutxitara, gabardina grisdun gizona zegoen, atari ilun batean gordeta, Tomi begira. Haren mugimendu guztiak arretaz segitzen zituen... Antso kapitainari misio sekretua agindu diote Eurasiako Konfederazioko agintariak: Marteko Hidra basera zama misteriotso bat eramatea. Bilbopolis megahiria atzean utzi eta, Hermes espaziontzian, bidaiari ekingo dio kapitainak. Marte planetan, ordea, ezuste ugari izango ditu. Aurkikuntza harrigarri batek munduaren eta bizitzaren ikuspegia aldatuko dio.

**Maila:** A2

**Orr:** 88

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## PINKY PAILAZOA (+CD)

Josu Lartategi Yustos / Alex Orbe Ferreiro (i.)

Kanadaren eta Estatu Batuen arteko baso zabal eta ilunek sekretua gordetzen dute. Nor da Pinky pailazoa? Nola desagerrarazten ditu ume bakartiak? Zer da, bahitzai lea ala hiltzailea? Zergatik egiten ditu halako gaiztakeriak? Richard Smith inspektoreak pista bat du, eta pista horrek Euskal Herrira eramango du.

**Maila:** B1

**Orr:** 88

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## TITARE BETE ZORION (+CD)

Miren Agur Meabe Plaza / Enrique Morente Luque (il.)

Juanek eta Mariak elkar ezagutu dute. Juan maisu erretiratua da, eta Maria, jostuna. Elkarrekin bizitzen jarriko dira, oroitzapenak eta asmoak partekatzeko. Hala ere, garbi dute oraina dela garrantzitsuen. Konpromiso bakarra, batak besteari zorion apur bat ematea. Baina Juan gaixotu egingo da.

**Maila:** B1

**Orr:** 88

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## INFERNURANTZ (+CD)

Estibaliz Vivanco / Aritz Eiguren (il.)

Columbia Unibertsitateko Tom Bradford irakaslea 16 ustekabean hil eta gero, Gabriel Pritchardek hildako lagunak sortutako CUMAE fundazioa ezagutuko du, Beatrice alargunaren eskutik. Aurkikuntza horrek hainbat ezusteko ekarriko dizkio Gabrieli, eta haren amesgaizto guztiak egia bihurtuko dira.

**Maila:** B1

**Orr:** 88

**Prezioa:** ~~13,15~~ - 11,90 €



## APAIZ GERRILLARIAREN EZKUTALEKUA (+CD)

Ander Izagirre /Maite Mutuberria(il.)

Aramaioko mendietan badago sarrera estuko kobazulo bat, azeriak bakarrik sartzeko modukoa. Hantxe ezkutatu zen apaiz gerrillaria, afusilatu nahi zutenengandik ihesi. Kobazuloa ezagutuko dugu, baita Euskal Herriko beste bederatzi txoko eta sekretu ere: erromatarren meatzeak, munstro ehiztarien etxeak, dinosauroak suntsitu zituen meteoritoaren errautsak, Erdi Aroko mezu harrigarriak

**Maila:** B2

**Orr:** 88

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



### **MARATON - Athleticen historia ezberdin bat (+CD)**

Lufxo Egia / Paul Caballero (il.)

Athleticen historia jokalarri handien izenez abiatzen da: Pichichi, Zarra, Iribar... edo, zergatik ez, Aduriz. Athleticen historia hori klubak berak argitaratutako liburuetan ikas dezakegu. Gure istorioa (eta Athleticen historiaren zati txiki bat), ordea, Bilboko San Francisco auzoan hasten da 1925ean eta emakume bat du protagonista: Sara Estevez 'Maraton'.

**Maila:** B1

**Orr:** 60

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



### **TXIMELETAK (A2) (+CD)**

Miren Agur Meabe / Iñaki Holgado (il.)

Neska txikia jaio denean, amari tximeleta zuria pausatu zaio bularrean. Sei urterekin, tximeleta more bat marraztu du amabixarentzat, baina hego bat falta zaio. Zergatik?


Geroago, abade batek min izugarria emango dio, eta neska txikiari tximeleta munstroak agertuko zaizkio ametsetan. Etxea erre orduko, tximeleta arreak ikusiko ditu...

Tximeletek beti lagunduko diote, une goxoetan eta latzetan. Batzuetan, neska txikiak bera ere tximeleta dela pentsatuko du. Eta badaki argiak hil egiten dituela tximeletak, baina norberaren eraldaketaren sinborea ere badirela.

**Maila:** A2

**Orr:** 68

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## KRESALAREN TABERNA(+CD)

Miren Agur Meabe / Iñaki Holgado (il.)

Emakume batek taberna bat zabaldu du hondartzan, aldi berri bat hasi nahi duelako. Banatuta dago eta ez dauka haurrik, soilik etorkizun zehazgabe bat. Zer da zoriona? Nola onartu bakardadea? Non geratzen dira okerrak? Horiek dira bere galderatako batzuk itsasoari begiratzen dionean, urtaroz urtaro. Bizitzak, mareak bezala, asko kendu dio, baina agian asko ekarriko oraindik ere.

**Maila:** A1

**Orr:** 68

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## DORIAN GRAYREN ERRETRATUA (+CD)

Oscar Wilde / Paul Caballero (il.)

–A, bai, zoriontsu gaudenean, beti izaten gara zintzoak, baina zintzoak garenean, ez gara beti zoriontsuak. Lord Henryren hitz zorrotz eta arriskutsuek mundu beldurgarri batera eraman zuten Dorian Gray gaztea; mundu hartan garrantzitsuagoa zen ederra izatea, zintzoa izatea baino; mundu hartan edozer barkatzen zen, hilketa ere bai, afalostean jendeari barre eragiteko modukoa izanez gero behintzat.

**Maila:** B1

**Orr:** 68

**Prezioa:** ~~10,90~~ - 11,90 €



## HISTORIA ALA ISTORIOA? (+CD)

Nagore Irazustaberrena / Ruth Juan (il.)


Napoleon handia gizon txikia al zen benetan? Zein da erpurua gora keinuaren egiazko esanahia? Egia al da piratek altxorrak lurperatzen zituztela? Nork asmatu zuen gillotina? ...

Historiarekin jolas egiteko irakurgaia duzu esku artean: gertakizun historikoen bi bertsio proposatzen dira, irakurleak asmatzeko bietako zein den zuzena, non dagoen historia eta non istorioa.

**Maila:** B1

**Orr:** 79

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## NAIA ETA ESKULTORE ITSUA


Alvaro Rabelli / Pedro J. Colombo (il.)

Kaleko prostituta batzuk hilda agertu dira errepede-bazterretan. Heriotza horien atzean pertsonen trafiko deitoragarria eta aberastasunaren paradisua aurkitu ez duten etorkinen bizimodu latza daude. Baina, heriotza horietan zerbait gehiago ere ezkutatzen da, zerbait iluna eta ankerra, Andre de Toth zuzendariaren House of wax (1953) filmean bezala. Naia detektibe gazteak eta bere laguntzaile Margotek argitu beharko dute.

**Maila:** A1

**Orr:** 75

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## BAIONA

Bea Salaberri / Asisko eta Dom

Baiona ezagutzeko gida da hau: hiriaren aztarnategiek erakusten duten antzinako Baiona zaharrean hasi eta egun sortzen ari diren auzo berrietaraino. Asteburuko ibilbidean bisitatuko ditugu Baionako karrika nabigagarriak, eraikin ikusgarriak, naturguneak, ostatuak, merkatuak, harresiak... eta baionesak! Baionako jende euskalduna.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2019

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## BILBO

Lutxo Egia / Asisko Eta Dom

Bilbon barrena bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Orain kale bat, gero zubi bat, hurrena historia puska bat... hiriko eskulturen inbentarioa eginez abiatuko du gidariak ibilbidea Bilboko baldosetan barrena, hiri zahar, bizi eta erakargarria eraikiz, bilbotarren bizipenen bitartez.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2019

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



### DONIBANE GARAZI

Nora Arbelbide Lefe / Asisko eta Dom


Historia eta kondairaz betetako hiria da Donibane Garazi gida honetan: euskara plazara jalgiazi zuena, Nafarroako hiriburua hau ere, gerraosteko iheslerien aterpea, negozioarako hirigunea, bidaiarien eta historiaren bidegurutzea... Eta bai, Donibane Garazi ederra ere bada, polit-polita, zinez ikusgarria, harri gorritaz eraikia, mendiarte leunaren babesean.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2019

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



### DONOSTIA

Nerea Auzmendi / Asisko eta Dom


Donostian bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Hiria ezagutzera datozen biloba gazteei izeba donostiarrek egindako ibilbidea. Tabakalerako terrazan abiatuko da, eta Sokamuturra kalekkan bukatu, Loretopera begira. Gune eta zoko baketsuen hiria proposatzen digu, jendetza zalapartatsutik ihesi.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2019

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## GASTEIZ

Patxi Zubizarreta / Asisko eta Dom

Gasteizen barrena bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Gidariak Gipuzkoatik iritsitako lagun-taldearekin batera korrituko ditu Gasteizko kaleak, eraikinak, parkeak, plazak, artelanak, hilerriak, tabernak, museoak, auzoak, historia puskak eta istorio osoak. Asteburu bakarrean hiri berdea goitik behera ezagutzeko aukera eskaintzen digu.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2019

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## IRUÑEA

Enrike Diez de Ulzurrun / Asisko eta Dom


Iruñea entzutean, berehala Sanferminak etortzen zaizkigu gogora. Baina Iruñeak beste gauza asko ere baditu jaiez gain, eta horietako batzuk biltzen ditu gida honek. Ibilbide bat proposatzen du kalez kale, plazaz plaza, txokoz txoko denetarikoa kontuak azalduta, bertakoentzat zein bisitarientzat jakingarriak, eta askotan, ezezagunak.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2019

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## MAULE LEXTARRE

Allande Sokarros / Asisko eta Dom

Euskal Herrian ekialdeena dagoen hiriburua da Maule-Lextarre, tamainaz txikia, historia eta nortasun handikoa. Zer ziren zinbitek? Nor da Matalaz? Non da Laminen etxea? Eta ur hotza eta epela batera ematen dituen Laminen iturria? Egun bakarrean burutzeko ibilbidean, lehengo eta egungo Maule-Lextarrerren argazki hurbila jasoko dugu, eta Zuberoan barrena egiteko itzuli polita ezagutuko.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2019

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~13,90~~ - 11,90 €



## ERDI AROKO EGUNAK

Laida Martinez

Bilbo hiribildu bihurtu zeneko aroan kokatu du Laida Martinezek bere eleberria. Fikziozko lana da, baina pisu handia dute garaiko gertakari historikoek. Bestek beste, portuko gorabeherak eta Diego Lopez de Haro eta Maria Lopez de Haro pertsonaiak agertzen dira nobelan.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2016

**Orr:** 96

**Prezioa:** ~~15~~- 12,75 €



## AMAIA UDALEKUETAN

Onintze Goitiz

Gaztetxoentzako abentura liburua ondu du Goitizek, eta Irakurketa Errazeko lanen artean kaleratu Gauminek. Amaia da protagonista: jaiotzez gorra, eta gurasoek gehiegi babesten dute. Ikasturte amaieran, udalekuetara joatekoak dira haren lagunak; Amaiak ere joan nahi du, gurasoen baimenik ez badu ere.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2015

**Orr:** 62

**Prezioa:** ~~15~~- 12,75 €



## TRAIZIOA LAKUAN

Nuria Martí Constans

Bi pasiorean artean borrokan ari den neska da Ondina. Batetik Patric du, iaz ezagutu zuen kirolari ingeles bikaina, eta orain berriro itzuli dena Banyolasera, entrenatzera. Bestetik Jordi, bere oraingo mutil-lagun goxo eta lotsatia. Bihotzak ez dio garbi erakusten zer egin, eta mutilen artean ere odol usaina zabalduko da. Norekin geratuko da Ondina? Maitasun triangelua, minaz eta heriotzaz blaiturik.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2014

**Orr:** 96

**Prezioa:** ~~15~~- 12,75 €



## TXERNOBIL TXIKI BAT ETXE BAKOITZEAN

Ander Izagirre

Txernobilgo istripu nuklearra gertatu zenean, Juliak 13 urte zeuzkan eta aire librean jolasean ibili zen egun osoan. Igorrek 28 urte zeuzkan, soldadua zen eta zentralera lanera korrika joateko agindu zioten. Inork ez zien azalpenik eman. Orain Juliak erreportaje bat idatzi nahi du, Txernobilaren zer gertatu zen eta gaur egun ingurua nola dagoen kontatzeko. Igorri eskatu dio laguntza, katastrofearen garaiaz biek dituzten oroitzapenak biltzeko eta, Txernobil bisitatzen duten bitartean, ondoan lagun bat izateko.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2014

**Orr:** 80

**Prezioa:** ~~15~~- 12,75 €



## SANTIAGO BIDEAREN MISTERIOA

Fernando Morillo

Diotenez, Santiago Bideak magia egin dezake ibiltari bakoitzaren baitan. Ulises marinel zaharra da. Bere itsasontzia hondoratu zenean, bera bakarrik atera zen bizirik, eta beldurra hartu zion bizitzari. Kemen, berriz, mutil gaztea eta irribarretsua da. Itxuraz, ezin zoriontsuagoa, bizitzaz eta bere neska-lagunaz maitemindua. Biak elkartuko dira Santiago Bidean, bakoitzak duen promesa sekretua betetzeko asmoz.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2014

**Orr:** 80

**Prezioa:** ~~15~~- 12,75 €



## IXTEBE PELLOT AZKEN KORTSARIOA

Fernando Morillo Grande

Bizitza batzuk zailak dira sinesten. Hain dira ausart, noble, umoretsu, nekaezinak, existitu daitezkeenik ere ezin dugu ia sinetsi. Baina hor dugu Ixtebe Pellot, azken kortsarioa. Itsas-borroka etengabea, askotan hartu zuten preso. Arriskuz arrisku, sekula etsi gabe, beti egin zuen ihes. Musika eta dantza maite zituen, eta karkaraz erantzuten zion minari. Begietara begiratzen zuen. Horregatik maite zuten lagunek. Baita etsaiek ere! Hemen kontatuko dena benetakoa da, sinesgaitza iruditzen arren. Prestatu. Norbait aparta ezagutzeko zorian zaude: Ixtebe Pellot, Euskal Azeria.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2016

**Orr:** 72

**Prezioa:** ~~15~~- 12,75 €



## **ATEJOLEA ETA IZAKI MISTERIOTSUA** Beldurrezko ipuinak Aitor Arana

Beldurrezko bi ipuin  
Beldurra. Zer da beldurra?  
Izaki misteriotsuen istorio beldurgarriak benetakoak ote dira?  
Beharbada ez, eta gure beldurrek sortzen dituzte.  
Edo beharbada gure desiren irrikek.  
Baina kontuz, beharbada bene-benetakoak dira.  
Eta egunen batean mamu bat zure logelan sartu nahian ibiliko da.  
Edo beharbada zure desirak betetzeko aukera duzu,  
baina hori ez da zuk uste bezain ona...  
Bi istorio beldurgarri hauetan bezala.

**Maila:** A2-B1

**Urtea:** 2017

**Orr:** 80

**Prezioa:** ~~15~~ - 12,75 €



## **LAMIA** Josu Lartategi

Lamiak euskal pertsonaia mitologikoak dira. Kontakizun honetan lamia gazte baten ibilaldia ezagutuko duzu. Kostaldetik barrualdera joango da, kaio baten laguntzaz, erreka garbiei zerbait oso arraroa gertatzen ari zaielako: urek kolore gorria dute. Zergatik aldatu da uren kolorea? Zer gertatzen zaie errekei? Lamiak misterioa argitu nahi du. Horretarako, ez da bakarrik ibiliko, ez horixe! Lagun berezi-berezi batzuen laguntza izango du.  
Istorio honetan beste garai batean sartukozara, garai zaharra, antzinakoa, eta pertsonaia mitologikoak ezagutuko dituzu: Tartalo, Galtzagorri, Ipotxak, Herensugeak...

**Maila:** A1.2

**Urtea:** 2016

**Orr:** 48

**Prezioa:** ~~6,95~~ - 5,90 €



## BALEA

Josu Lartategi

Baleak, planeta honetako animalia handienak, arriskuan daude. Azkenak irla bakarti batean bizi dira. Bertan jolastu eta amets egiten dute, bertan maitatu eta atsedean hartu. Arriskua, hala ere, oso hurbil dute, arrantzaleak haien bila doazelako... eta gizakien odol-egarriak ez du mugarik. Baleak ondo dakite hori; horregatik, azken bidaiari ekingo diote. Urrunera joango dira, oso urrunera. Istorio honetan Haundi eta Pott izeneko baleak ezagutuko dituzu: balea zaharra eta balekumea. Horiek izango dira protagonista, kapitain krudel batekin batera. Baleak eta gizakiak aurrez aurre...

**Maila:** A2.2

**Urtea:** 2016

**Orr:** 48

**Prezioa:** ~~6,95~~ - 5,90 €



## ASTEROIDEA

Zaharren Egoitza leku lasaia da, lasaiegia. Bertan, zaharrek bizitza egiten dute. Hiltzeko oso denbora gutxi falta zaiela uste dute eta horregatik ez daukate itxaropen handirik etorkizunean. Nahikoa da telebista ikustea, jatea, trikotatzea, paseotxoak egitea, lo egitea... eta berriz ere dena errepikatzea. Bisitak ere badituzte, baina oso gutxitan, senideak ez direlako ia inoiz zaharrekin gogoratzen.

Egun batean, ordea, telebistak berri harrigarria eman du: asteroide erraldoia dator luraren kontra eta munduaren azkena izango da. Une horretatik aurrera, bizitza erabat aldatuko da Zaharren Egoitzako lau atso-agurentzat, Antontxu, Mikela, Boni eta Eukenirentzat.

**Maila:** A2.2

**Urtea:** 2016

**Orr:** 48

**Prezioa:** ~~6,95~~ - 5,90 €



## MUSEOKO HILTZAILEA

Josu Lartategi

Nork mehatxatu du eskultorea? Nork hil nahi du eta zergatik? Luigik laguntza eskatu dio Martin Iriberry ikertzaileari. Diruz txarto zabiltzanean ezin diozu lan-eskaintza bati ezetz esan, nahiz eta etsai batena izan. Horixe gertatu zaio Martini. Lan erraza dirudi hasieran. Sakonago ikertzen hasi denean, ordea, ulertzen ez dituen gauza gehiegi dagoela konturatu da. Istorio beltz honetan Bilbon zehar ibiliko zara, Martin Iriberry ikertzaile pribatuarekin. Galtzaileen eta irabazleen hiri horretan edozer gertatu ahal da, baita hilketak ikaragarriena ere.

**Maila:** B1.2

**Urtea:** 2016

**Orr:** 48

**Prezioa:** ~~6,95~~ - 5,90 €